

UDALEKU IREKIAK 2017

- 1) Norentzat: 3 eta 10 urte bitarteko umeentzat (2007-2013). Talde bitan: Txikiak (2012 eta 2013) eta Handiak (2007-2011).
- 2) AMETX TXARTELA ume txartela bezala aktibatuta izatea derrigorrezkoa da izena emateko.
- 3) 3 aste eskaintzen dira aukeran:
Asteak (aukeran):
 1. astea: ekainaren 26tik 30era
 2. astea: uztailaren 3tik 7ra
 3. astea: uztailaren 10etik 14ra
 4. astea: uztailaren 18tik 21era
Ordutegia (aukeran):
 - A.- 9:00 – 13:00 35 € asteko
 - B.- 9:00 – 15:00 75 € asteko (jantoki zerbitzua barne)
- 3) Onartuen zerrendetan lehentasuna izango dute Amorebieta-Etxanon erroldatuek. Horrela, eskari-kopurua eskainitako plaza-kopurua baino handiagoa bada, kanpoko biztanleak azkenak izango dira zerrendetan.
- 4) Plaza mugatuak. Matrikulazio gehiegi izan ezkereraz zozketaz esleituko dira plazak. Behin betiko zerrenda maiatzaren 12an argitaratuko da.
- 5) NEBA-ARREBAK: Zozketa egiterakoan zenbaki bakar batekin parte hartuko dute izen-emate orri bakar baten izena eman badute.
- 7) Izena emateko epea: 2017ko apirilaren 24tik maiatzaren 10era Gazte Informazio Bulegoan. Ordutegia: 10:00 – 13:00 eta 17:00 – 20:00.
- 8) Ordainketa egiteko modua: kreditu txartela. Inskripzio orria betetzean asteko 10 €-ko fidantza ordainduko da. Ordainketa osoa behin betiko zerrendak argitaratzen direnean ezartzen den epean egingo da.
- 9) Prezioak eta deskontuak.
Astebete A taldean: 35 €
Astebete B taldean: 75 €
Familia unitateko 2. kideak % 20ko deskontua
Familia unitateko 3. kideak % 40ko deskontua
DBE: prezio ordenantzaren arabera
- 10) Itzulketak. Izena emateko epea bukatuta ez da dirurik itzuliko hurrengo egoeretako bat ematen ez bada (beti ere idatziz eskatuta eta dagokion dokumentuak aurkeztuta): a) gaixotasun edo istripu larria (medikuaren ziurtagiria) edo b) udalekuetara etortzea eragozten duten ustekabeak edo beharizan larriak, justifikatuta. Behin udalekuak hasita diru itzulketara arazo larriren bat suertatzen bada baino ez da bueltatuko, eta disfrutatuko diren egunen kopuru proportzionala soilik.
- 11) Udalekuak Larrea ikastetxeko egoitzetan eta udal kirol eta kultura egoitzetan garatuko dira onartzen den programaren arabera.
- 12) Informazio batzarra. Ekainean izango da eta bertan udalekuetako programaren zehaztasun guztiak emango dira: ekintzak, irteerak, ekarri eta jakin beharrekoak, eta abar.
- 13) Deialdi honetan ematen diren informazioa eta datu pertsonalak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen babespean egongo dira.
- 14) Beharizan bereziak dituzten umeak. 5 plaza daude, horrek baino gehiago izango balira zozketa batez esleituko dira plazak. Minusbaliotasun psikikoa duten umei udalekuetan parte hartzeko 2 urteko marjina emango zaie.